

Doña NAGORE SARASOLA OTERMIN and.

Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek Secretaria General del Ayuntamiento de San Sebastián

Neuk ziurtatua: Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzarrak, 2026ko apirilaren 13an izan zuen ohiz kanpoko eta premiazko bilkuran, erakunde adierazpen hau onartu zuela, aho batez:

“Donostian izan den azken sexu erasoaren aurrean egiten dugun adierazpen instituzionala

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzardeak adierazpen instituzional hau egitea erabaki du:

1.- Azken ordutan Donostian gertatu den sexu-erasoaren ondoren, Udalak bere gaitzespen sutuena adierazi nahi du, bai eta biktimari eta haren inguruari elkartasuna adierazi ere. Horretarako, behar dituen informazioa eta udal-baliabideak jarriko ditu haren osatze- eta erreparazio-prozesuan laguntzeko.

Ildo horretan, Udalak, kasuaren berri izan eta ikuspegi osoagoa eta zehatzena izateko informazioa egiaztatu ondoren, premiazko bilera bat deituz informazio guztia biltzeko eta erakundearen erantzuna eta biktimari eta haren inguruneari eman beharreko arreta koordinatzeko.

2.- Horrelako erasoak gure gizartean oraindik ere badagoen indarkeria matxistaren eta sexualaren adierazpena dira. Gertatutakoak agerian uzten du, beste behin ere, beharrezkoa dela gizarte-eragileekin eta, oro har, herritarrekin batera lan egiten jarraitzea berdintasunaren alde eta sexu-indarkeria mota guztiak desagerrarazteko.

3.- Alde horretatik, Udalak, bere eskumenen barruan, neurriak bultzatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du, biktimek arreta azkarra, koordinatua eta eraginkorra jaso dezaten, eta, aldi berean, prebentzio-jarduerak indartu daitezen eta erasotzaileen zigorgabetasuna onartu ez dadin.

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión extraordinaria y urgente celebrada el 13 de abril de 2026, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

“Declaración institucional ante la última agresión sexual en Donostia / San Sebastián

La Junta de Portavoces del Exmo. Ayuntamiento de San Sebastián, acuerda la siguiente Declaración Institucional:

1.- Tras la agresión sexual que ha tenido lugar en las últimas horas en Donostia / San Sebastián, el Ayuntamiento manifiesta su más enérgico rechazo y condena así como su solidaridad con la víctima y su entorno, y pone a su disposición la información y los recursos municipales que requieran para acompañarla en su proceso de recuperación y reparación.

En ese sentido, el Consistorio, desde el momento que ha tenido noticia sobre el caso y tras contrastar la información que nos permitiera tener la visión más completa y certera posible, ha convocando una reunión de urgencia para recabar toda la información y coordinar la respuesta institucional y la atención a la víctima y su entorno.

2.- Este tipo de agresiones son la expresión de la violencia machista y sexual que todavía existe en nuestra sociedad. Lo sucedido pone en evidencia, una vez más, la necesidad de seguir trabajando de manera conjunta con los agentes sociales y la ciudadanía en general en favor de la igualdad y la erradicación de toda forma de violencia sexual.

3.- En este sentido, el Ayuntamiento, dentro de sus competencias, se compromete a seguir impulsando medidas para que las víctimas reciban una atención rápida, coordinada y eficaz y, al mismo tiempo, para que se refuercen las actuaciones preventivas y no se permita la impunidad de los agresores.



4- Udalak, giza eskubideen erabilera eraginkorra bermatzeaz arduratzen den erakunde publikoa den aldetik, 2026ko apirilaren 13an, 12:00ean, gaitzespen-kontzentrazio bat deitu du Alderdi Ederreko Lorategietan, eta herritar guztiak gonbidatu ditu deialdiarekin bat egitera eta sexu-indarkeria gaitzestera.

5.- Udalak bat egiten du hirian egiten diren gaitzespen-deialdiekin.

Donostian, 2026ko apirilaren 13an

Olatz Yarza Garagorri

EAJ-PNVren bozeramailea

Vanessa Vélez de Pablos

PPren bozeramaile ordezkoa

=====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, sinaduraren egunean.

4.- El Ayuntamiento, como institución pública responsable de garantizar el ejercicio efectivo de los derechos humanos, convoca para el 13 de abril de 2026, a las 12:00h, una concentración de rechazo en los Jardines de Alderdi Eder e invita a toda la ciudadanía a sumarse y expresar su rechazo a la violencia sexual.

5.- El Ayuntamiento se suma a las convocatorias de repulsa que se realicen en la ciudad.

Donostia / San Sebastián, 13 de abril de 2026

Juan Karlos Izagirre Hortelano

EH Bilduren bozeramailea

Víctor Lasa Briz

Elkarrekin Donostiaren bozeramailea

=====

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a la fecha de la firma.

IDAZKARI NAGUSIA – LA SECRETARIA GENERAL

Nagore SARASOLA OTERMIN

**ALKATEAK O. E. -
V. ° B. ° DEL ALCALDE:**